



PREMIO MANUEL LEKUONA DE EUSKO IKASKUNTZA

Convocatoria 2021 Impreso normalizado

IMPORTANTE En cumplimiento de la legislación vigente de protección de datos personales, EI-SEV le informa que los datos personales recabados serán objeto de tratamiento informatizado con la finalidad de gestionar la candidatura del premio. Igualmente, EI-SEV le informa que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante el responsable del fichero por correo electrónico: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, o por correo convencional en la dirección de la entidad: EI-SEV Responsable de datos personales, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia- San Sebastián.

EUSKO IKASKUNTZAK EMATEN DUEN MANUEL LEKUONA SARIRAKO HAUTAGAITZA

Nafarroako Berdintasunerako Institututik, **SAGRARIO ALEMAN ASTITZ** proposatu nahi dugu Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona sarirako hautagai gisa, bere bizi ibilbideagatik, euskal kulturarekin duen ekarpen eta konpromisoagatik eta gizonezko eremuetan erreferentzia den emakumea izateagatik.

Sagrario Aleman Astitz (Etxaleku, 1952) Farmazian lizentziatu zen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, nahiz eta bere lan-bizitza euskara aldeztara eta sustatzera bideratuta egon den, Nafarroako alfabetatze- eta euskalduntze-mugimenduarekin oso lotuta.

Oso gaztea zela hasi zen euskara sustatzen. 20 urterekin, Nafarroako hainbat lurraldetako euskaltegieta hasi zen irakasle-lanetan, eta ehunka pertsonarengana iritsi zen urte horietan. 1982an Arturo Campion euskaltegiaren zuzendaritza hartu zuen bere gain, eta kargu horrekin egon da erretiratu arte. Honez gain, Arturo Campion euskaltegiko didaktika-taldeko kidea da.

Irakaskuntzan eta didaktika ikasketak hasi zituen urte berean, hainbat komunikabiderekin elkarlanean hasi zen, besteak beste, Jakin, Príncipe de Viana aldizkariaren gehigarria, Argia, Pulumpe, Egin eta EITBko Euskadi Irratia. Egunkaria Sortzen taldeko kidea izan zen. Arturo Campión politikari eta hizkuntzalari nafarraren lanetan oinarritutako bi komikiren gidolaria ere izan zen, honen biografiaren egilekidea ere badelarik.

Nabarmentzekoa da euskararen soziolinguistika, didaktika eta gramatikari buruzko hitzaldi, biltzar eta jardunaldietan parte hartu izana. Gainera, hainbat erakunde eta ekitaldi esanguratsuren laguntzailea izan da: Udako Euskal Unibertsitatea/Universidad Vasca de Verano, Euskaltzaindiak Israelera antolatutako bidaia (1980), AEK, IKA eta Topagunea, besteak beste.

Gaztetatik Sagrario Alemanek euskara eta euskal kultura sustatzen diharduten elkarteekin lan egin du: Euskal Herrian Euskaraz (1979) ekimenaren hasieratik parte hartu du eta Karrikiri Elkartea sortzen ere lagundu zuen. Gainera, Zaldiko Maldiko (1981) kultur elkartearen sustatzailea izan zen, eta 1987an elkarte honek Lamien Urrezko Orrazia saria eman zion, Sagrario Aleman Iruñeko Udalean euskararen alde egindako lana saritzeko. Euskalerrria Irratiak ere Sagrarioren lana aitortu nahi izan zuen Larreko Saria emanez. Noticias taldeak Ortzadar saria eman zion 2016. urtean, euskara sustatzeko egindako lanagatik.

Sagrario Aleman urte batzuetan politikagintzan aritu zen; 1982 eta 1987 bitartean zinegotzi izan zen Iruñeko Udalean, eta 1987 eta 1991 bitartean Nafarroako Parlamentuan ere parte hartu zuen. Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeko kide izan zen. Halaber, IKA ordezkatu zuen Euskal Kulturaren Batzarrean eta Kontseiluan.

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazlea izendatu zuen 2006an; urtebete geroago euskaltzain oso izendatu zuten eta 27 zenbakiko aulkia esleitu zioten. Euskaltzaindiaren ordezkari gisa hitzaldiak eman eta argitaratu ditu. Zuzendaritza Batzordeko kidea da 2012az geroztik, lehenengo 8 urteetan diruzaina izan delarik, eta gero JAGON saileko arduraduna. Sustapen Batzordeko buru da aspaldikotik. Euskaltzaindiak Nafarroan duen ordezkaria da 2021az geroztik. Halaber, Nafarroako Euskararen Kontseiluko kide da, Euskaltzaindiaren ordezkari gisa.

Urte haietan ez zen batere erraza emakume izatea eta euskal kulturaren alde lan egitea. Izaera ekintzaileak bultzatuta, gizarte zibil antolatutik euskara eta euskal kultura sustatzeko eta defendatzeko erakunde ugari bultzatu zituen, eta Euskaltzaindia bezalako erakunde garrantzitsu bateko Zuzendaritza Batzordera iritsi zen.

Bederatzi urte egon zen politikan, emakumeen presentzia ere ez zen ohikoa Trantsizioan. Lehen urte haietan, Nafarroako udaletako zinegotzigoen %12 bakarrik eramaten zuten emakumeek, eta Nafarroako Parlamentuan ez zen iristen %1,5era.

Aipatu nahi dugu oso garrantzitsua dela emakumeek eremu publikoak hartzea, are gehiago urte haietan. Emakumeak esparru publikoen parte izatea, patriarkatuak esleitzen zien eremu pribatutik aterata, oso garrantzitsua izan da gaur egun gero eta onartuagoa egon dadin tradizioz gizonei esleitu zaizkien espazioak okupatzeko emakumeek duten eskubidea.

Euskaltzaindiaren moduko erakunde maskulinizatueta, zuzendaritzako postuetan, eta erabakiak hartzeko postuetan egotea ere, gizarte gisa lorpen garrantzitsua da, eta bide horretan aurrera egin behar dugu.

Gauzak horrela, Sagrario Aleman, bere bizi-ibilbidearen arabera, erreferentea da euskal kulturen, euskararen sustapen aktiboan eta helduen euskalduntzearen esparruan, eta, zuzenean edo zeharka, Nafarroan hiru belaunaldi eta 20.000 pertsonen euskalduntzeari, eta euskararen normalizazioari laguntzen dio.

Guzti honez gain, erreferente izan da emakumeek bizitza publikoan parte hartzeari dagokionez: gizarte zibilean, politikoan, komunikabideetan eta erabakiak hartzeko espazioetan.

Horregatik guztiagatik, helduen euskalduntzean, hedabideen, herri-elkarteen eta erakunde ofizialen bidez euskara zabaltzeko eta sustatzeko, eta esparru maskulinizatueta nabarmendu delako, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak **SAGRARIO ALEMAN ASTITZ** Eusko Ikaskuntzak ematen duen Manuel Lekuona sarirako hautagaitza aurkeztu du.


Eva Istúriz Garcia

 Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio
Publikoko eta Barneko Departamentua
Departamento de Presidencia, Igualdad,
Función Pública e Interior
Nafarroako Berdintasunerako Institutua
Instituto Navarro para la Igualdad



PREMIO MANUEL LEKUONA DE EUSKO IKASKUNTZA

3. RAZONES PARA LA PROPUESTA

3.1. Razones para la presentación de la propuesta (su trayectoria, compromiso y aportaciones principales a la cultura vasca, trabajo de divulgación, experiencia fuera del ámbito académico...)

Desde el INAI-NABI destacamos:

La trayectoria vital de Sagrario Aleman, su aportación a la cultura vasca, su trabajo en el impulso del euskara en Navarra tanto desde la sociedad civil como desde el ámbito laboral, su labor de divulgación y formación, su emprendimiento como mujer, la relevancia de haber tomado el espacio público en tiempos en los que las mujeres tenían muy definido su espacio dentro del ámbito privado, y su presencia en espacios mayoritariamente masculinizados.

NABItik azpimarratzen dugu:

Sagrario Alemanen bizitzako ibilbidea, euskal kulturari egindako ekarpena, gizarte zibiletik nahiz lan arlotik Nafarroan euskara bultzatzeko egindako lana, prestakuntza eta dibulgazio lanak, bere ekintzailetza emakume gisa, emakumeek eremu pribatuan beren espazioa oso definituta zuten garaietan eremu publikoa hartzearen garrantzia, eta nagusiki maskulinoak diren espazioetan egotea.

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR JUNTO CON ESTE IMPRESO:

- ✓ Carta presentación Curriculum
- ✓ Vitae Fotografía de la candidatura
- ✓ Otros: Adhesiones: Euskalerria Irratia Fundazioa. Arturo Campión Fundazioa. Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ikaatarrabia. Zaldiko Maldiko Elkartea. Noticias Taldea. Patxi Salaberria. Francisco Juan Zabaleta. Mikel Bujanda. Idoia Estornés. Montxo Armendáriz. Roldán Jimeno. Itziar García. Kike Amonarriz. Miguel Angel Ciordia. M^a Francisca Zabaleta. M^a del Pilar Larraza. Igor Ijurra
- ✓

Lugar, fecha y firma

Pamplona-Iruña, septiembre de 2021-2021.ko irailean

IMPORTANTE En cumplimiento de la legislación vigente de protección de datos personales, El-SEV le informa que los datos personales recabados serán objeto de tratamiento informatizado con la finalidad de gestionar la candidatura del premio. Igualmente, El-SEV le informa que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante el responsable del fichero por correo electrónico: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, o por correo convencional en la dirección de la entidad: El-SEV Responsable de datos personales, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia- San Sebastián.

CURRICULUM VITAE : SAGRARIO ALEMAN

- Farmaziako lizentziaduna (Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea).
- Irakaskuntza lana: Iruñeko Arturo Campión Euskaltegia (1972); Arrotxapea (1977); Andosilla eta Sartagudan (1978-1979); Sakana (1979-1981). Arturo Campiónen zuzendaria 1982tik erretiroa hartu arte. Arturo Campion euskaltegiko didaktika-taldeko kidea.
- Komunikabideekin elkarlanak: Príncipe de Viana aldizkariaren gehigarriarekin elkarlanean hasi zen. Halaber, Jakin, Bat, Argia, Pulunpe, Egin, Bilbo Hiria irratia edo EITBren Euskadi irratia bezalako argitalpen eta hedabideetan parte hartu du.
- Euskararen soziolinguistika, didaktika eta gramatikari buruzko jardunaldiak, artikuluak, liburuak:
 - 1990 Alfabetatzea Euskal Herrian: (1960-1990): kronika laburra (Liburua, elkarlanean).
 - 2007 EAEko euskararen legearen garapenaz Nafarroaren ikuspegia: nire sentimendua (artikulua).
 - 2008 Euskaraz mintzatzen da (artikulua).
 - 2008 Berdetik horira: sarrera-hitzaldia (Euskaltzain berriak egindako hitzaldia).
 - 2009 Etorkinak eta euskara (jardunaldia).
 - 2010 Gazteak, aisialdia eta euskara (jardunaldiak).
 - 2011 Arabatik Arabara, euskaraz (jardunaldiak).
 - 2012 Euskararen geroa Ipar Euskal Herrian (jardunaldiak).
 - 2013 Euskara Nafarroatik (jardunaldiak).
 - 2014 Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan (jardunaldiak).
 - 2017 Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa (jardunaldiak).
 - 2018 Hizkuntza-zuzenbidea: Testu bilduma euskaraz (liburua, elkarlanean).
 - 2019 Araba, euskaraz bidea egiten (jardunaldiak).
 - 2019 Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria : 1964-2018 (jardunaldiak).
 - 2020 Hizkuntza gutxiagotuak jagon, euskaraz bizi (liburua).
 - 2020 Biografia de Arturo Campion (Euskaltzaindia, elkarlanean).
- Euskal Herrian Euskaraz elkarteko kidea hasieratik (1978); Iruñeko Karrikiri Elkartearen bultzatzailea.
- Zaldiko Maldiko kultura-gizartearen sustatzailea (1981).

- Hainbat erakunde eta ekitaldiren laguntzailea: Udako Euskal Unibertsitatea, Euskaltzaindiak Israelera antolatutako bidaia (1980), Iruñan Sortua taldea (1983), Eibarko Udaleko Soziolinguistika Jardunaldiak (1984), Eskoriatzako Seminario Adorez eta Atseginez (1991), AEK, IKA, Topagunea, besteak beste.
- 1982-1987, Iruñeko Udaleko zinegotzia.
- Euskararen Aldeko Batzordea (1986).
- Egunkaria sortu zuen taldearen bultzatzailea (1990).
- Nafarroako parlamentaria 1987tik 1991ra.
- 2 komikiko gidoilaria: Arturo Campionen Erraondoko azken ttunttuneroa (1993) eta Arturo Campionen Pedro Mari (1995).
- IKArek ordezkaria Euskal Kulturaren Batzarrean eta Kontseiluan (1997).
- Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeko kidea 2001etik 2005era.
- Euskaltzaindia, euskaltzain urgazlea 2006an. 2007an Euskaltzain Oso izendatu zuten (27. aulkia). Euskaltzaindiaren ordezkari gisa hitzaldiak eman eta argitaratu egin ditu. Zuzendaritza Batzordeko kidea da 2012az geroztik, lehenengo 8 urteetan diruzaina izan delarik; gero JAGON Saileko burua izan da. Sustapen Batzordeko burua da. Euskaltzaindiaren ordezkaria Nafarroan 2021. urtetik.
- Euskaltzaindiaren izenean "Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzorde"ko kide.
- Euskararen Nafar Kontseiluaren partaide Euskaltzaindiaren izenean.
- Sariak:
 - Lamien Urrezko Orrazia (Zaldiko Maldiko, 1987).
 - Larreko Saria (Euskalerrria Irratia, 1996).
 - Ortzadar saria (Noticias taldea, 2016).